



DIRU SARRERAK

Diru sarrerak beharrezkoak izango dira gure app-a martxan jarrai dezan. App-a doanik denez, gure bezeroak bertan nahi duten zerbitzuak eskuratu ahal izango dituzte kosturik gabe. Beraz, nondik lortuko ditugu diru-sarrerak?

Gure diru-sarrerak bazkideengandik datoz. Bezero gisa, bertan erregistratu behar duzu, erabiltzaile-izen bat eta pasahitz bat hautatuta. Hortik aurrera, zure posta-kodea sartu ondoren, zerbitzu-mota ugari izango dituzu zure eremuan banatuta. Aldiz, bazkideak, bertan erregistratu ondoren zerbitzuaren prezioaren gaineko %15-eko komisioa ordaindu behar diote webguneari. Softwarrak hilean 30 euro balio du eta bezeroen erabileraren historialera eta harremanetarako datuetara sartzeko aukera ematen du. Horrek aukera ematen du eskaintza eta deskontuekin mugikorreko mezuak bidaltzeko.

Gure diru-sarreraren estimazio bat egitea zaila da, oso aldagai aldakorra izango delako, alegia, saldutako zerbitzuen arabera aldatuko delako. Era berean, saldutako zerbitzu kopurua aurreikustea zaila da, denboran zehar aldatuz, haundituz joan dela suposatzen dugun arren.

Proiektuaren bideragarritasuna aztertzen, ondorengo estimazioak egin ditugu; Hasierako bazkide kopuru minimoa 100 bazkideetakoa da, helburua lortzeko ez dugu zailtasunik aurreikusten. Beraz, bazkideengandik hilabetero jasoko genukeen diru-sarrera 3000€ dira.

Hilabeteko gastu finkoak 7460€-koa da, hauetatik 3000 kuoten bidez estaliko ditugularik, gainontzekoa 4460€ komisioen bidez lortu behar litzatekelarik.

Bataz beste zerbitzu bakoitzaren prezioa 50€ inguru izan daitekela estimaturik, %15eko komisioa aplikatuz, 7.5€-tako margena utziko liguke. Horrela, 595 zerbitzu eskainiz gure gastuak estaliko genituzkelarik.

Datu hauek ikusirik, gure proiektuaren gakoetako bat bazkide kopurua da, hilabeteko sarrera finkoak bermatzen dituelako eta zerbitzu kopuru minimoa betetzen laguntzen digulako.